



Andoaingo Udalak 2021erako ordenantza fiskalak izoztea onartu du

- **Zergadunei ez zaie zama fiskal handiagoa aplikatuko, eta zergak eta tasak izozteak Udalaren diru-bilketarako ahalmenari eta zerbitzu publikoei eustea ahalbidetuko du**
- **Azken hiruhileko honetan bigarren laguntza-plan bat aktibatuko da, COVID-19ak sortutako ezohiko egoera sozioekonomikoa lehengoratzeko**

Andoaingo Udalak etengabe jarraitzen du COVID19aren ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko ahaleginean. Gobernu taldeak 2021erako tasa eta zerga guztiak izozteko eginiko proposamena aho batez berretsi da.

Maidar Lainez alkateak eta Mari Jose Izagirre alkateordeak, 2021erako "koherentziaz eta arduraz" prestatu eta ostegun honetako ezohiko osoko bilkuran bozkatu ondoren onarturik geratu den ordenantzen proposamenaren "oso balorazio positiboa" egin dute.

Alkateak adierazi duenez, egungo egoeran "ez dugu igoerarik egin nahi izan herritarrei presio fiskala murrizteko, nahiz eta horrek ahalegin berezia eskatuko dion Udalari, diru gutxiago bilduko delako eta, ondorioz, baliabide gutxiago izango direlako, baina zerbitzu publikoei eutsi nahi diegu eta pertsona ahulenen beharrei erantzun, inor atzean utzi gabe".

Lainez alkateak azaldu duenez, "eginiko proposamenak COVID19-aren aurkako tresna izan nahi du", "COVID-19ak gehien kalteturiko sektoreei malgutasunaren eta hobarien bitartez" laguntzeko.

Berrikuntzak ordenantza fiskaletan:

FAMILIENTZAKO NEURRIAK: Etxebizitzaren katastro-balioaren muga aldatzea, 165.000 €-tik 200.000 €-ra, OHZri begira eta salbuespenei heldu ahal izateko. Kategoría orokorreko eta bereziko familia ugariarentzat: hobariak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan.

ETXEBIZITZA HUTSAK MERKATURA ATERATZEA BULTZATZEKO NEURRIA: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren %50eko hobaria ezartzea Etxebizitza Hutsten Programaren barruan lagatzen diren higiezinari.

OSTALARITZARAKO NEURRIAK: 30 m³-tik gorako ur-kontsumoaren prezioa jaitea tabernentzat, jatetxeentzat, ostatuentzat eta jatetxe- edo/eta taberna-zerbitzua duten antzekoentzat: 1,94 €/ m³-tik 1,75 €/ m³-ra.

COVID-19 hobaria terrazen tasan: Oro har %50. Aldiz %100, 2020ko maiatzetik urrira bitartean 2019ko epe berarekin alderaturik fakturazioa %50 jaitsi zaienentzat.



Tasa berria sortzea upeletarako, mahai altuetarako edo antzekoetarako, eta %50eko COVID-19 hobaria aplikatuko zaie, oro har. Aldiz %100ekoa, 2020ko maiatzetik urrira bitartean fakturazioa %50 jaitsi dutenentzat, 2019ko aldi berarekin alderatuta (tasa hori aplikatuko da ordenantza indarrean jartzen denean, une honetan Hirigintza Saila aldatzen eta eguneratzen ari baita).

FAMILIEI, AUTONOMOEI, SALTOKIEI, OSTALARITZARI ETA ENPRESEI ZUZENDUTAKO NEURRIAK: Atzerapenak eta zatikatzeak emango dira, hala eskatzen denean eta kasu bakoitzaren azterketa egin ondoren.

Andoain eta bertako toki-ekonomia bultzatzea

Onarturiko ordenantza fiskalek, herritarrengan eragina duen osasun-krisiarekin koherentzia erakutsi beharra eta biztanleek orain dituzten zerbitzuak ez murrizteko konpromisoa uztartzen dituzte.

Lainez alkateak COVID19ak Udalaren egunerokotasuna baldintzatu zuenetik eginiko etengabeko lana agerian utzi nahi izan du, "aurrekaririk gabeko agertokia da eta erabakiak etengabe hartzera behartu gaitu". Horien artean, hauek nabarmendu nahi izan dituzte:

- Zergen eta tasen ordainketa atzeratzea, geroratzeak eta zatikatzeak eta eman ez diren zerbitzu edo/eta jardueren ordainketak itzultzea.
- Garbiketa- eta desinfekzio-lanetarako baliabideak handitu arren, tasak eta prezio publikoak ez dira igoko.
- Tokiko merkataritzan eta ostalaritzan kontsumoa sustatzeko bonuen bi kanpaina. Bigarrena azaroaren 15era arte egongo da indarrean.
- COVID-19aren ondorioz eginiko gastuak eta inbertsioak ordaintzeko diru-laguntza lerro berria.
- Merkataritzarako, ostalaritzarako eta autonomoentzako diru-laguntzen lehen lerroa udaberrian.

Laguntza-plan berria urteari amaiera emateko

Mari Jose Izagirre alkateordeak azpimarratu duenez, "eskualde mailan, Andoain aitzindaria izan da hainbat jarduera eten behar izan diren edo fakturazioa nabarmen jaitsi den hilabeteak arintzeko laguntza plana prestatzen". Ekonomia suspertzea eta enplegua berreskuratzea ezinbestekoak izango dira COVID19ak sortutako egoera sozioekonomikoa leheneratzeko.

Izagirrek aurreratu duenez, "gobernu taldea lanean ari da azken hiruhileko honetan martxan jarriko den 300.000€-ko kopurua izango duen bigarren Laguntza Planaren xehetasunak ixten". Gainera, aurreratu duenez, "laguntzei buruzko agindu berriak aurrekoak ez zituen berrikuntzak izango ditu, zenbatekoei eta hartzaileei dagokienez, hain zuzen ere, diskriminazioak saihesteko eta andoaindar guztiengana iritsi ahal izateko".

Andoain, 2020ko urriaren 16an



El Ayuntamiento de Andoain aprobó la congelación de las ordenanzas para el 2021

- **No se aplicará más carga fiscal a los contribuyentes y la congelación de impuestos y tasas permitirá mantener la capacidad recaudatoria del Ayuntamiento, así como los servicios públicos**
- **Este último trimestre se activará un segundo plan de ayudas, con el objetivo de revertir la excepcional situación socio-económica generada por la COVID-19**

El Ayuntamiento de Andoain no cesa en su empeño de contrarrestar los efectos socio-económicos generados por la COVID19. La propuesta del equipo de gobierno de congelar todas las tasas e impuestos de cara al 2021 ha sido ratificada de forma unánime.

La alcaldesa Mainer Lainez y la teniente alcalde Mari Jose Izagirre, han realizado una valoración muy positiva sobre la propuesta de ordenanzas confeccionada y aprobada con "coherencia y responsabilidad" para el 2021, sometido a votación en el pleno extraordinario de este jueves.

La alcaldesa ha señalado que en la actual situación "no hemos querido aplicar ninguna subida para reducir la presión fiscal a la ciudadanía, aunque ello vaya a exigir un esfuerzo especial por parte del Ayuntamiento, porque se recaudará menos dinero y, por consiguiente, se dispondrá de menos recursos, pero queremos mantener los servicios públicos y atender las necesidades de las personas más vulnerables, sin dejar a nadie atrás".

Según ha detallado la alcaldesa Lainez "la propuesta realizada pretende ser una herramienta anti-covid" que posibilite ayudar "mediante la flexibilización y las bonificaciones a los sectores más afectados por la COVID19".

Novedades en las ordenanzas fiscales:

MEDIDAS PARA LAS FAMILIAS: Modificar el límite del valor catastral de la vivienda de 165.000€ a 200.000€, de cara al IBI y a poder acogerse a las exenciones. Para familias numerosas de categoría general y especial: bonificaciones en el impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.

MEDIDA PARA IMPULSAR QUE SALGAN AL MERCADO LAS VIVIENDAS VACÍAS: Dar una bonificación del 50% del IBI, a aquellos inmuebles cuyo uso sea objeto de cesión en el marco del Programa de Vivienda Vacía.

MEDIDAS PARA LA HOSTELERÍA: Bajada del precio del consumo de agua de 30 m³ en adelante, para bares, restaurantes, hospedajes y similares con servicio de restaurante y/o bar: de 1,94 €/m³ a 1,75 €/m³.

Bonificación COVID-19 en la tasa de terrazas: 50% en general. 100% para aquellos cuya facturación entre mayo y octubre de 2020 haya bajado un 50% respecto al mismo período del 2019.



Andoaingo Udala



Creación de una tasa para las barricas, mesas altas o similares, a las que se le aplicará la siguiente bonificación COVID-19: 50% en general. 100% para aquellos cuya facturación entre mayo y octubre de 2020 haya bajado un 50% respecto al mismo período del 2019 (esta tasa será de aplicación cuando entre en vigor la ordenanza, que en estos momentos se está modificando y actualizando desde el Departamento de Urbanismo).

MEDIDAS PARA FAMILIAS, PERSONAS AUTÓNOMAS, COMERCIOS, HOSTELERÍA Y EMPRESAS: Se darán aplazamientos y fraccionamientos, bajo petición y análisis particular de cada caso.

Impulsar Andoain y su economía local

Las ordenanzas fiscales aprobadas combinan la necesidad de ser coherente con la crisis sanitaria que afecta a la ciudadanía con el compromiso de no recortar los servicios de los que disfruta ahora la población.

La alcaldesa Mainer Lainez ha querido poner de manifiesto el continuo trabajo realizado desde que la COVID19 condicionó el día a día del consistorio "un escenario sin precedentes que nos ha obligado a la toma de decisiones continua". Entre ellas, han querido destacar las siguientes:

- Retraso del pago de impuestos y tasas, aplazamientos y fraccionamientos, devolución de pagos por servicios y/o actividades que no se han prestado.
- Pese al incremento de recursos a las labores de limpieza y desinfección, no se subirán las tasas ni los precios públicos.
- 2 campañas de bonos dirigidas a incentivar el consumo en el comercio y la hostelería local. La segunda vigente hasta el 15 de noviembre.
- Una nueva línea de subvenciones para sufragar los gastos e inversiones realizadas a causa de la COVID-19.
- Una primera línea de subvenciones para comercio, hostelería y personas autónomas en primavera.

Nuevo Plan de Ayudas para cerrar el año

La teniente alcalde Mari Jose Izagirre ha destacado que "a nivel de comarca, Andoain ha sido pionera a la hora de confeccionar un plan de ayudas para paliar los meses en los que diferentes actividades han tenido que cesar o en los que la facturación ha caído de forma sustancial". La reactivación económica y la recuperación del empleo serán fundamentales para revertir la situación socio-económica generada por la COVID19.

Izagirre ha avanzado que "el equipo de gobierno ultima los detalles del segundo Plan de Ayudas por importe de 300.000€, que se pondrá en marcha en este último trimestre". Además, ha avanzado que "la nueva orden de ayudas tendrá novedades respecto a la anterior, en lo que se refiere a los importes, así como a los destinatarios, precisamente para evitar discriminaciones y poder llegar a todas las personas andoaindarras".

Andoain, 16 de octubre de 2020